



Atzoko aurkezpena Andoaingo Martin Ugalden. [DV]

Txootx! ikuskizuna igande honetan eskainiko da Oilumen

ASTIGARRAGA. DV. Igandean *Txootx!* ikuskizuna estrainatuko da Oilamen, dantza, bertso eta musika osatuta. Bertan Xabier Euskitze eta Aiztondo Abesbatza, besteak beste, izango dira, Jon Maiak zuzenduko duen ikaskuzunean. Ordua eguerdiko 12:00tan izango da. Sagardotegietan hamaika kantu, dantza eta bertso egindakoak gara guztiak. Txotxaren inguruan maki-na bat agerraldi artistiko sortu dira. Lagun giroan, txotxaren zipriztinaz, barruak dantza egi-ten du sagardotegian.

Hain zuzen, horren lekuko dira Euskal Herriko kultur ondarean edanarekin lotzen diren bertso, kantu, doinu eta

dantza guztiak. «Edariak eragin ditzakeen ondorio txarrak aipagai dira sarritan, baina ez dira aherentzi behar edariak eta edariaren inguruko bilerek gure kultur ondarean utzi dituen altxorak. Oso ezagunak dira guztiontzat edaria aipagai edo arrazoi dituzten kantuak eta dantzak», zioten antolatzeileek atzo aurkezpenean Andoaingen. *Txootx!* ikuskizuna horren lekuko da. Sagardotegi giroan aurkeztuko dira guztiok oso ezagun ditugun kantuak, doinuak eta dantzak. Bertan elkartuko dira Aiztondo Abesbatza, Ereintza dantza taldeko txistulariak eta dantzariak eta Peñagarikano eta Euskitze bertsolariak. ■